

## “HOBETU ZURE HIRIKO KLIMA” / Irailaren 16tik 22ra

Legazpiko Udalak Europako Mugikortasun Iraunkorraren astearen aldeko atxikimendu-gutuna sinatu du. Aurten hauxe izango da astearren leloa: “Hobetu zure hiriko klima”.

Klima aldatzen ari da eta bai ingurumen mailan eta bai maila ekonomiko eta sozialean gure planetak jasaten dituen mehatxuetako handienetakoa da.

Gaur egun leku batetik bestera joateko dugun modua erregai fosilak erabiltzen dituzten ibilgailuen erabileraren mende dago eta, horregatik, garraioa da CO<sub>2</sub> gasaren isurketa handiena sortzen duen sektorea.

“**Hobetu zure hiriko klima**” leloa ez dago klima meteorologikoarekin bakarrik lotuta. Hirietako atmosfera orokorrari eta bizi kalitateari eragiten dioten alderdiei ere egiten die aipamen; adibidez, airearen kalitateari, zaratari, errepideko segurtasunari, leku publikoen kalitateari, gizarte batasunari eta integrazioari. Horiez gain, bestelako interpretazioak eta ekintza-eremu desberdinak izan daitezke.

### LEGAZPIN BURUTUKO DIREN EKINTZAK

EGUNA	ORDUA	LEKUA	EKINTZA
18	16:00- 20:00	Euskal Herria plaza	<p><b><u>BIZIKLETA ELEKTRIKOEN ETA IBILGAILU HIBRIDOEN ERAKUSKETA:</u></b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Ibilgailu hibridoak:</b> Ibilgailu hibridoak bi motor erabiltzen ditu: bat elektrikoa eta bestea barne-errekuntzako. Biek mugiarazten dute ibilgailua baina bakoitza egoeraren arabera hasten da martxan. Motor elektrikoa ez da sarera entxufatu behar; behar duen energia baterietatik jasotzen du eta bateria horiek gasolinazko motorretik elikatzen dira azeleratzean edo balaztatzean eta energia zinetikoa berreskuratzen du. Beraz, ez da horrenbeste erregai erretzen eta, ondorioz, gas kutsakor gutxiago isurtzen da. Ibilgailu zubiak dira iraunkortasuna sustatuko duten geroko ibilgailuak lortu bitartean.</li> <li>• <b>Motozikleta elektrikoak</b></li> <li>• <b>Bizikleta tolesgarriak, mini-bizikletak, elektrikoak</b></li> </ul> <p>Horrezaz gain, eskuko ordenagailua jarriko da nahi duenak <b>norberaren autoak isurtzen dituen CO<sub>2</sub> -ko tonak kalkula ditzan.</b></p>

			- Ekintza hori UGGASaren laguntzarekin burutuko da-
22	18:30	<p>Euskal Herria plazatik abiatuta bidegorriaren ibilbidea egingo dugu: Euskal Herria plaza - P.Etxebarria - Santikutz kalea - Laubideko errotonda - San Ignazio (Muru) - Juanastegi - Aiztonaga - Aizkorri kalea - Euskal Herria plaza.</p> <p>Plazara iritsi eta gero, nahi dutenek bigarren buelta egin dezakete bidegorria alderantziz eginez.</p> <p>Txikienek, lehenengo bueltan, zuzenean Murun edo Txorronean sar daitezke.</p>	<p><b>BIZIKLETA-MARTXA</b> Legazpiko bidegorritik. Aurtengo helburua da legazpiarrok bidegorria erabiltzen animatzea.</p> <p>Kontuan izan:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gure ohiko joan-etorrietarako bizikletaren erabilera errebindikatzeko ekintza da. Oraindik bidegorria erabili ez duten herritarrak hura erabiltzera animatzeko ekintza izango da.</li> <li>• Horregatik, parte hartuko dutenak normal jantzita joan daitezela eskatuko da.</li> <li>• Abiadura mugatuta dago: orduko 20 km.</li> <li>• ¡Ez ahaztu kaskoa !</li> </ul> <p>Amaieran ogitartekoak eta fruta banatuko dira.</p> <p>- Ekintza hori honako erakundeekin koordinatuta antolatu da: UGGASA, Korosti txango-txirrindularien Elkartea eta Telleriarteko txirrindulari elkarte -</p>